

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ZEHARKAKO ZERGEN SERBITZUA

BEZaren eta Zerga Bereziaren Atala

93/2020 Foru Agindua otsailaren 26koa, 318 eredia onesten duena (balio erantsiaren gaineko zerga). Ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiten hasi aurreko likidazio aldiei dagozkien tributazio proportzioak erregularizatzea

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 29. artikulua abenduaren 28ko 10/2017 Legearen artikulua bakarraren bidez aldatu zen (Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duena).

Artikulu horren idazketa berrian ezartzen denez, baldin eta beren jarduerari dagozkion ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen aurreko likidazio aldietan zergadunak tributu administrazio baten ordainarazpen eskumenaren mendean egon badira eta beste administrazio baten mendean ondoko likidazio aldietan, edo baldin eta likidazio aldi horietan zergaren ordainketaren proportzioa nabarmen aldatu bada administrazio bati edo besteari, erkidea edo forala, ordaintzean, itzulitako kuoten erregularizazioa egingo da, aipatutako 29. artikuluko bederatzigarren apartatuan jasotakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan aipatzen den erregularizazioa balio erantsiaren gaineko zerga onesten duen urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzazko Foru Dekretuaren 2.bis artikulua bederatzigarren apartatuan jasota dago, eta honela egingo da: kontuan hartuta administrazio bakoitzari aplikatzekoak zaizkion tributazio portzentajeak, ondasun emate edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoari dagozkionak.

Helburu horretarako, subjektu pasiboek aitorpen espezifiko bat aurkeztuko dute erregularizazioak eragindako administrazio guztietan, beren jarduerari dagozkion ondasun emate edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoari dagokion azken aitorpen likidazioa aurkeztu behar duten epe berean.

Horrenbestez, foru agindu honek ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiten hasi aurretik itzulitako kuotak erregularizatzeko 318 eredia onesten du eta eredia aurkezteko prozedura eta baldintzak arautzen ditu.

Zeharkako Zergen Zerbitzuak egindako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATU DUT

1. artikulua. Onestea 318 eredia

Ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiten hasi aurreko likidazio aldiei dagozkien tributazio proportzioak erregularizatzen dituen 318 eredia onesten da, foru agindu honen eranskinean jaso.

2. artikulua. 318 eredia aurkeztu behar dutenak

Eredu hau balio erantsiaren gaineko zergaren subjektu pasibo hauek aurkeztu behar dute:

a) Ondasun emate edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoari dagokion azken likidazio aldian Estatuko Administrazioaren ordainarazpen eskumen eskusiboaren mendea dauden subjektu pasiboak, baldin eta, une horren aurreko aldietakoren batean, baldintza hauetako edozein betetzen badute:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiren baten ordainarazpen eskumen eskusiboaren mendea egon badira.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait foru aldundiren ordainarazpen eskumenaren mendea egon badira, betiere aldundiei egotzi dakiekeen tributazio portzentajea ehuneko 40koa edo hort.

3. Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundi baten edo zenbaiten ordainarazpen eskumenaren mendea egon badira, betiere Estatuko Administrazioari egotzi dakiekeen tributazio portzentajea ehuneko 60koa edo hortik beherakoa denean.

b) Ondasun emate edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoari dagokion azken likidazio aldian Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiren baten ordainarazpen eskumen eskusiboaren mendea egon diren subjektu pasiboak, baldin eta, une horren aurreko aldietakoren batean, baldintza hauetako edozein betetzen badute:

1. Estatuko Administrazioaren ordainarazpen eskumen eskusiboaren mendea egon badira.

2. Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundi baten edo zenbaiten ordainarazpen eskumenaren mendea egon badira, betiere ordainarazpen eskumen eskusiboa duen foru aldundiari egotzi dakiekeen tributazio portzentajea ehuneko 60koa edo hortik beherakoa izan denean, ondasun emate edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoari dagokion azken likidazio aldian.

c) Ondasun emate edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoari dagokion azken likidazio aldian Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundi baten edo zenbaiten ordainarazpen eskumenaren mendea egon diren subjektu pasiboak, baldin eta, une horren aurreko aldietakoren batean, baldintza hauetako edozein betetzen badute:

1. Administrazio bakar baten ordainarazpen eskumenaren mendea egon badira, betiere administrazio horri egotzi dakiekeen tributazio portzentajea ehuneko 60koa edo hortik beherakoa izan denean, ondasun emate edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoari dagokion azken likidazio aldian.

2. Hainbat administrazioen ordainarazpen eskumenaren mendea egon badira, betiere administrazio horiei egotzi dakiekeen tributazio portzentajea gutxienez ere ehuneko 40 aldatu bada, ondasun emate edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoari dagokion azken likidazio aldian egotzi beharrekoarekin alderatuta.

d) Ondasun emate edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoari dagokion azken likidazio aldian Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait foru aldundiren ordainarazpen eskumenaren mendea egon diren subjektu pasiboak, baldin eta, une horren aurreko likidazio aldietakoren batean, baldintza hauetako edozein betetzen badute:

1. Estatuko Administrazioaren ordainarazpen eskumen eskusiboaren mendea egon badira.

2. Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundi baten edo hainbaten ordainarazpen eskumenaren mendea egon badira, betiere administrazio horietakoren bati egotzi dakiekeen tributazio portzentajea gutxienez ere ehuneko 40 aldatu bada, ondasun emate edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoari dagokion azken likidazio aldian egotzi beharrekoarekin alderatuta.

3. artikulua. Aurkezteko moduak

Bat. 318 eredia nahitaez aurkeztu behar da baliabide telematikoen bitartez, zenbait zergapekok Interneten bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituen otsailaren 3ko 39/2010 Foru Aginduan ezarritako kasuetan.

Bi. Artikulu honetako aurreko paragrafoan jasotzen ez diren kasuetan, paperean aurkeztu ahal izango da 318 eredia.

4. artikulua. Aurkezteko epea

318 eredia aurkeztu beharko da ondasun emate edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen ondoko lehenengo egutegiko urte osoari dagokion balio erantsiaren gaineko zergaren azken aitortpen likidazioa aurkeztu behar den epe berean.

Xedapen iragankor bakarra

Foru agindu honen 3. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, salbuespen gisa eta 318 eredia bide elektronikoz aurkezteko gaituta egon arte, eredu hori paperean aurkeztuko da.


Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea

Foru agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean, eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 26a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Balio Erantsiaren gaineko Zerga Ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiten hasi aurreko likidazio aldiei dagozkien tributazio proportzioak erregularizatzea</p> <p>Impuesto sobre el Valor Añadido Regularización de las proporciones de tributación de los periodos de liquidación anteriores al inicio de la realización habitual de entregas de bienes o prestaciones de servicios</p>	<h1>318</h1>
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila	Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos	
<p>1 IDENTIFIKAZIOA ■ IDENTIFICACIÓN</p> <p style="text-align: center;">IDENTIFIKAZIO TXARTELA JARTZEKO LEKUA ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA</p>	<p>2 SORTZAPENA ■ DEVENGO</p> <p>Ekitaldia <input type="text"/> Ejercicio</p> <p>3 Ordezko aitopena <input type="checkbox"/> Declaración sustitutiva</p> <p>Aitorpenaren identifikazio zenbakia Número identificativo declaración</p> <p>318 <input type="text"/></p>	
<p>4 AURKEZTEKO ARRAZOA eta ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiteko HASIERA DATA MOTIVO DE LA PRESENTACIÓN y FECHA DE INICIO de la realización habitual de entregas de bienes o prestaciones de servicio</p> <p>Zerga egoitza aldatzea ■ Cambio domicilio fiscal <input type="checkbox"/></p> <p>Ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiteko hasiera data Fecha de inicio de la realización habitual de entregas de bienes o prestaciones de servicio / /</p>		
<p>5 Ondasun emate edo zerbitzu prestazioak egin ohi diren unearen ondoko lehenengo urte natural osoari dagokion azken likidazio aldiari dagozkion TRIBUTAZIO PORTZENTAJEAK PORCENTAJES DE TRIBUTACIÓN correspondientes al último período de liquidación del primer año natural completo posterior al inicio de la realización habitual de entregas de bienes o prestaciones de servicios</p> <p>ARABA ■ ÁLAVA <input type="text"/> % BIZKAIA <input type="text"/> %</p> <p>GIPUZKOA <input type="text"/> % LURRALDE ERKIDEA TERRITORIO COMÚN <input type="text"/> %</p>		
<p>6 Ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiten hasi aurretik LORTUTAKO ITZULKETAK DEVOLUCIONES OBTENIDAS antes del inicio de la realización habitual de entregas de bienes o prestaciones de servicios</p> <p>ARABA ■ ÁLAVA <input type="text"/> BIZKAIA <input type="text"/></p> <p>GIPUZKOA <input type="text"/> LURRALDE ERKIDEA TERRITORIO COMÚN <input type="text"/></p>		
<p>Data Fecha</p>	<p>Sinadura Firma</p>	

RE-20/041

318 Eredua**Balio Erantsiaren gaineko Zerga**

Ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiten hasi aurreko likidazio aldiei dagozkien tributazio proportzioak erregularizatzea

1. IDENTIFIKAZIOA

Itsatsi identifikazio etiketa horretarako dagoen gunean.

2. SORTZAPENA

Ekitaldia: aitorpena zein ekitaldiri dagoen zehaztuko da.

3. ORDEZKO AITORPENA

Aitorpena lehenago arkezututako beste baten ordezkioa bada, egoera hori adieraziko da "X" jarrita laukian. Halaber, aurreko aitorpenaren identifikazio zenbakia jarriko da.

4. AURKEZTEKO ARRAZOIA ETA ONDASUN EMATEAK EDO ZERBITZU PRESTAZIOAK OHIKOTASUNEZ EGITEKO HASIERA DATA

ZERGA EGOITZA ALDATZEA: Lauki honetan "X" jarri behar duzu, bakarrik kasu hauetan:

- Zerga egoitza Araban dagoenean aitorpenari dagoen ekitaldian (2), eta beste lurralde batean ondasun emateak edo zerbitzu emateak egiten hasi aurreko ekitaldian.
- Zerga egoitza Araba ez den beste lurralde batean dagoenean aitorpenari dagoen ekitaldian (2), eta Araban izan bada ondasun emateak edo zerbitzu emateak ohikotasunez egiten hasi aurreko ekitaldian.

OHIKO ONDASUN EMATEAK EDO ZERBITZU EMATEAK EGITEKO HASIERA DATA

Jarri beharko duzu ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiteko hasiera data:

5. ONDASUN EMATE EDO ZERBITZU PRESTAZIOAK EGIN OHI DIREN UNEAREN ONDOKO LEHENENGO URTE NATURAL OSOARI DAGOZKION AZKEN LIKIDAZIO ALDIARI DAGOZKION TRIBUTAZIO PORTZENTAJEAK

Arabako Lurralde Historikoari, Estatuko Administrazioari eta gainerako Foru Lurraldeei dagozkien tributazio portzentajeak adierazi beharko dituzu aitorpenean (2) aipatzen den ekitaldiko BEZaren likidazioaren azken aldian.

6. LORTUTAKO ITZULKETAK

Ondasunak entregatzen edo zerbitzuak ematen ohikotasunez hasi aurretik BEZagatik lortutako itzulketen zenbateko osoa jarri beharko duzu, Administrazioaren arabera banakatuta.

LEGE OHARRA. DATUEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) jasotakoa betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Zergadunen Fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamenduetan zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dira.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

Erregelamendu horretan aitortzen diren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, haien aurka egiteko eta datuak mugatzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz, Araba).

Informazio gehiago:
<http://www.araba.eus/web/LegekoOharHedatua>

Modelo 318**Impuesto sobre el Valor Añadido**

Regularización de las proporciones de tributación de los periodos de liquidación anteriores al inicio de la realización habitual de entregas de bienes o prestaciones de servicios

1. IDENTIFICACIÓN

Adhiera la etiqueta identificativa en el espacio reservado al efecto.

2. DEVENGO

Ejercicio, se hará constar aquel al que corresponda la declaración.

3. DECLARACIÓN SUSTITUTIVA

En el supuesto de que la declaración sea sustitutiva de otra anteriormente presentada, se hará constar tal circunstancia marcando la casilla con una "X", debiendo consignarse asimismo el número identificativo de la declaración anterior.

4. MOTIVO DE PRESENTACIÓN Y FECHA DE INICIO DE LA REALIZACIÓN HABITUAL DE ENTREGAS DE BIENES O PRESTACIONES DE SERVICIO:

CAMBIO DE DOMICILIO FISCAL: Deberá consignar "X" en esta casilla exclusivamente en los siguientes casos:

- Cuando el domicilio fiscal radique en Álava en el ejercicio al que se refiera la declaración (2) y en otro territorio en los ejercicios anteriores al inicio de la realización de entregas de bienes o prestaciones de servicios.
- Cuando el domicilio fiscal radique en otro territorio distinto de Álava en el ejercicio al que se refiera la declaración (2) y hubiera radicado en Álava en los ejercicios anteriores al inicio de la realización habitual de entregas de bienes o prestaciones de servicios.

FECHA DE INICIO DE LA REALIZACIÓN HABITUAL DE ENTREGAS DE BIENES O PRESTACIONES DE SERVICIOS:

Deberá consignar la fecha en que haya iniciado la realización habitual de entregas de bienes o prestaciones de servicios.

5. PORCENTAJES DE TRIBUTACIÓN CORRESPONDIENTES AL ÚLTIMO PERIODO DE LIQUIDACIÓN DEL PRIMER AÑO NATURAL COMPLETO POSTERIOR AL INICIO DE LA REALIZACIÓN HABITUAL DE ENTREGAS DE BIENES O PRESTACIONES DE SERVICIOS:

Deberá consignar los porcentajes de tributación correspondientes al Territorio Histórico de Álava, así como a la Administración del Estado y al resto de Territorios Forales en el último periodo de liquidación del IVA del ejercicio al que se refiera la declaración (2).

6. DEVOLUCIONES OBTENIDAS

Deberá consignar el importe total de las devoluciones por IVA obtenidas con anterioridad al inicio de la realización habitual de entregas de bienes o prestaciones de servicios desglosado por Administración.

AVISO LEGAL. PROTECCIÓN DE DATOS

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (Reglamento General de Protección de Datos), le informamos que los datos que nos facilita van a ser incluidos en el Fichero de Contribuyentes titularidad de la Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión, inspección y recaudación de los diferentes tributos.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el citado Reglamento dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, (Plaza de la Provincia, 5, 01001 Vitoria-Gasteiz, Álava).

Para más información:
<http://www.araba.eus/web/AvizoLegalAmpliado>